

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Laugarren Hiruhilekoa 2021

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 **Lanbide**

Txosten honek, 2021eko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8


Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) datuak, urte arteko % 4,6ko hazkundea erakusten du 2021eko laugarren hiruhilekorako, 2021 urte osorako aurreikuspena % 5,6koa izanik

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021eko abenduan egindako aurreikuspenaren arabera, EAEko BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa +%4,6koa izango da 2021eko laugarren hiruhilekoan.


Eskura dagoen koiunturako informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021erako taula makroekonomikoa berrikusi du, behe-ranzko zuzenketa garrantzitsu batekin, eta 2022ko datuak gorantz eguneratu ditu. Aurreikuspen agertoki berriak %5,6ko batez besteko igoera ezartzen du 2021ean eta %6,7koa, berriz, 2022an. Ekoizpen kateetan botila lepoak egotea, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak direla eta, hazkundea 2021eko bigarren sei hilekotik 2022ra lekualdatzea eragiten duen faktore nagusia da.

Familien kontsumoari mesede egingo diote, batetik, geroraturako eskari efektuak, eta, bestetik, errenta eskuragarrian, termino errealean, espero den igoerak. Enpresen inbertsioa dinamismo handieneko barne eskariaren agregatua izango da, Europako funtsek emango duten bultzadari esker. Eskaintzari dagokionez, ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkundeari, bai 2021ean, bai 2022an.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, "Koiuntura DI-DA batean 2022ko urtarrila" txostena

Espainia eta Euroguneko ekonomiei dagokienez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspena +%5,1ekoa da 2021 urterako, Nazioarteko Diru Funtsek (NDF) Espainiarako urte berdinerako egindako aurreikuspena +%5,7koa izanik. 2022 urterako egindako aurreikuspenak Eurogunerako eta Espainiarako +%4,2 eta +%6,4koak dira, hurrenez hurren.




Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2022ko urtarrila" txostena

Gaur egungo aurreikuspen ekonomikoek erakusten dute mundu mailako susperraldia aurrera jarraitzen ari dela, baina intentsitatea galtzen ari dela, ziurgabetasuna areagotzen den bitartean. Nazioarteko testuinguruan, behe-ranzko arriskuak nabarmen nagusitzen dira. Hala, pandemia berriro aktibatu izanak, txertaketa prozesua atzeratzeak eta birusaren aldaera berri erresistenteagoak agertzeak egoera ekonomikoa baldintzatu dute. Bestalde, nazioarteko merkatuetako eskaintzaren eta eskariaren desorekak areagotzeak eta inflazioan dauden tentsioak areagotzeak aurreikuspen ekonomikoak okerragotu dituzte.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko % 3,9ko jaitsiera izan du urteko laugarren hiruhilekoan; -4.142 emakume eta -505 gizonezko

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2021eko laugarren hiruhilekoan (4.647 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 114.845 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera % 3,9koa izan da eta urte arteko jaitsiera % 11,1ekoa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 4.142 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean eta -505 gizonezkoen artean. Emakumezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 63.614 pertsonatan kokatu da eta 51.231 pertsonatan gizonezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.477); ondoren, 16-24 urte bitarteko artean (-995); 45-54 urte bitartean (-955); 35-44 urte bitartean (-843) eta 55-64 urte bitartean (-377).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Bizkaia eta Araba izan dira langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duten lurraldeak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%4,5 eta -%3,6, hurrenez hurren). Ondoren, Gipuzkoa (-% 2,8).

Lanbiden erregistratutako langabetuen hiruhileko arteko eboluzioa, Lurralde Historikoak (%; 2021 H4 vs 2021 H3)



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzeritarren kopurua %1,0 igo da eta bertako langabetu kopurua % 4,8 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 18.561 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 96.284 pertsonatan.


Ikasketak arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duen taldea unibertsitate ikasketak dituztenena izan da (-%10,5); jarraian, Batxilergo ikasketak dituztenen taldea (-%6,1); Lanbide Heziketako ikasketak dituztenen taldea (-%6,0) eta oinarrizko ikasketak dituztenen taldea (-%1,5).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza (-908); (ii) Hezkuntza (-695); eta (iii) Janari eta edarien zerbitzuak (-355). Langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duten jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: (I) Enpleguarekin lotutako jarduerak (+413); (ii) Nekazaritza, abeltzaintza (+285); eta (iii) Metalurgia, burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak (+101).

Afiliazioa Gizarte Segurantzian


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 980.022 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 2,2 gehiago

EAEn 2021eko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 980.022 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino % 2,2 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 2,2 gehiago baita ere.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 52a gizonezkoak dira eta % 48a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,2). Gipuzkoan, % 33,4koa izan da eta Araban % 16,4koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 11.853 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; Gipuzkoan +5.546 eta Araban +4.148.


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, laugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jardura atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,3); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,0); eta (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,4). 2021eko laugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jardura atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Hezkuntza (+12.782); (ii) Ostalaritza (+3.363); eta (iii) Arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (+2.397). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak daude: (i) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (-1.712); Manufaktura industria (-489); eta (iii) Osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuak (-282).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua % 0,6 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 74.691 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua % 7,6koa da, afiliatu autoktonoena % 92,4koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa % 0,5 jaitsi da eta emakumezkoen afiliazioa % 1,9 igo da. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa % 1,3 igo da Bizkaian, eta egonkor mantendu da Araban eta Gipuzkoan.

Kontratututako pertsonak eta kontratuak

Azken hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua % 24,3 hazi da aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuz; sinatutako kontratu kopurua guztira 248.927koa izan da

2021eko azken hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **persona kopurua** guztira 123.976koa izan da, aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 24,3 gehiago.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 44,4k derrigorrezko ikasketak ditu, % 21,5ek Batxilergo ikasketak, % 15,8k unibertsitate ikasketak eta % 17,8k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2021eko azken hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 27,9ko pisuarekin; 35-44 adineko taldeak jarraitzen dio (% 23,1).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 82,8a bertakoa da eta % 17,2ak atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhileko portzentajea baino 0,1 puntu altuagoa). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmen-tzen dira: latinoamerikarra (% 44,8), Europar Erkidegoak eta ez erkidegokoak (% 19,2) eta Afrika iparraldekoak (% 15,7).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 284.927 kontratu erregistratu dira (kontratututako pertsonak baino 2 aldiz gehiago). Aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta % 27,2 hazi da kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdina jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 10,1 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2.5 puntu altuagoa) eta % 89,9 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 41,7 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2.9 puntu altuagoa).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, gehien Araban hazi dira kontratuak (% 38,2), aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta; Gipuzkoan % 28,8 hazi da kontratazioa eta Bizkaian % 22,4 hazi da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 50,5; 125.798); jarraian, Gipuzkoa (% 29,3; 72.894) eta Araba (% 20,0; 50.235).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (% 13,7); (ii) osasun jarduerak (% 13,1); (iii) manufaktura industria (% 12,9) eta (iv) administrazio jarduerak (% 11,7). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 19,4) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 20,5).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa % 9,9koa izan da eta enplegu tasa % 50,7koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** % 50,7koa izan da (% 55,1 gizonzkoen kasuan eta % 46,6 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 951.400ekoa izan da, aurreko urteko hiruhileko berdinean baino 17.800 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 496.700ekoa izan da (aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 2,5 gehiago) eta 454.700ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 1,2 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 77,8), 397.300 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 22,0), 41.000 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 45 urte gorakoena (+% 5,2).

Lurralde Historikoei dagokienez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 53,1), jarraian Gipuzkoa (% 51,5) eta Bizkaia (% 49,5). Landun kopuruari dagokionez, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta, Bizkaian erregistratu da hazkunde handiena (+% 2,6)

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,4). Ondoren, Industria sektorea (% 20,9), Eraikuntza sektorea (% 5,9) eta Lehen sektorea (% 0,8).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen % 69,8k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 28,9k aldi baterako kontratuak. **Kontratuen partzialtasunari** dagokionez, kontratuen % 80,4 lanaldi osoak izan dira eta % 19,6 lanaldi partzialekoak.

Azken hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** % 9,9koa izan da (% 9,5 gizonzkoen artean eta % 10,4 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 104.700 pertsonakoa izan da, aurreko urteko hiruhileko berdinean baino 14.900 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan % 19,0 murriztu da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan % 4,9 murriztu da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 7,); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 11,5) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 21,3). Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan murrizketa handiena izan duen taldea 24 urte azpikoena izan da (-% 17,2); 45 urte gorako taldean % 5,4 soilik murriztu da langabetu kopurua.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 7,9), jarraian Araba (% 9,5) eta Bizkaia (% 11,3). Aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua lurralde guztietan murriztu da; gehien Gipuzkoan murriztu da (-% 17,9).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 43,0k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, % 29,k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, % 28,0k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen % 76,2 bertakoak dira, atzeritarrek, beraz, % 23,8.